



Funtsezko baliabideak

Giza baliabideak

- Gure taldea

Gu, hau da, taldean gauden lau pertsonak, izango gara lehen baliabideak. Gure funtzioa, balio proposamena garatzea eta sortzea izango da. Gu izango gara negozioa kudeatuko dutenak eta lan gehien egingo dutenak.

Baliabide intelektualak

- Jakintza:

Merkatuaren ezagutza ezinbestekoa izango da gure enpresa gure lehiakideengandik dezberdintzeko eta arrakasta izateko. Hortaz gain, bezeroen ezagutza beharrezkoa izango da gure zerbitzua nolakoa den aukeratzerakoan, gure balizko bezeroa erakartzeko eta beraren beharrak asetzeko gai izan behar garelako.



- Gaitasuna:

Negozio bat aurrera eramateko gaitasuna izan behar dugu; izan ere, oso zaila da negozio bat zerotik hastea eta errentagarritasuna lortzea. Horregatik enpresa kudeaketa gaitasuna eta gure proposamena bezeroari iristarasteko gaitasuna beste askoren artean oso erabilgarriak izango dira.


- Esperientzia:

Gure taldean ez dago inor esperientziarik duenik lehenagotik, denentzako lehen aldia da enpresa bat sortzen duguna, horregatik esan dezakegu gure enpresak ez duela esperientziarik.

Baliabide fisikoak

- Lokala

Lehen baliabide fisikoa, gure lokala izango da. Gure lokalaren barruan, hainbat kaspula jarriko ditugu bertan jendeak lo egin dezan. Honekin batera bezeroek, komunak izango dituzte eskuragarri dutxa batzuekin batera beraien beharrak asetzeko. Azkenik, edozein bezerok gosea edo egarria baldin badu, Vending makina batzuk izango ditugu lokalaren barruan.





- Web-orria/aplikazioa

Gure bigarren baliabide fisikoak web-orria eta aplikazioa izango dira. Bezeroek web-orri bat eta aplikazio bat izango dute eskuragarri, bertan gure informazio generala agertuko da, hau da, gure sorkuntza, balio proposamena... Baita ere, bertan erreserbak eta ordainketak egin daitezke gure lokaleko kapsulak erreserbatzeko. Hortaz gain, 24 orduko zerbitzu bat egongo da bezeroak edozein arazo edo zalantza baldin badauka bertan galdetzeko eta guk lagundu ahal izateko.

Finantza-baliabideak

- Inbertsoreek hornitutako dirua

Inbertsore pribatuek eta inbertsio fondoan inbertitu dutenek ekarriko duten dirua izango da. Hau gure lokala erosteko eta erreformatzeko balioko digu.

- Gure aurrezkiak

Enpresaren kideek ditugun aurreztutako diru guztia. Honek enpresaren hasierako garapenean lagunduko digu. Adibidez, lokalaren alokairuan.

